




ANDOAINGO UDALA

irteera **990- 2018/03/07**



EUSKARALDIA, 11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Andoaingo euskaldun askoren ahotan dabil euskararen erabilerari buruzko kezka. Egiten ote dugu euskaraz egin ahal dugun guztia eta guztietan? Eta, horretarako, bata bestearen babesean indar hartu eta egunerokoan euskaraz gehiago jarduteko konpromisoa hartuko bagenu? Piztuko al dugu denon artean euskaraz egiteko ilusio berri bat Andoainen? Baietz Andoainen ere! "Ahoz aho, bizi-bizi", pozik, gustura, gero eta gehiago.

Testuinguru horretan ulertu behar dugu Euskaraldia. Euskal Herri osoko euskal hiztunen eta euskara ulertzen dutenen erronka kolektiboa, hasi azaroaren 23an eta abenduaren 3ra arteko 11 egunetan gauzatuko dena euskararen erabilera areagotzeko helburuz.

Euskararen erabileran hazkundera eragingo bada funtsezkoa da euskararen alde egotetik egiterako jauzia kolektiboki ematea, euskaldunak eta euskaltzaleak aktibatuta eta elkar hartuta, nor bere inplikazio mailarekin.

Euskal Herri osoko egitasmoa izanik, Andoainek ere parte izan behar duela iritzita, euskararengandik gertu zaudeten herritar eta erakundeengana zuzendu gara bidea elkarrekin abiatuko dugulakoan, guk, Udalak, eta zuek, herritar eta gizarte-erakundeek.

Euskaraldia gertutik ezagutu eta zalantzak argitzeko, nahiz bakoitzaren inplikazio maila zein izan litekeen ikusteko helburuarekin deitu dugun **bilerarako gonbita luzatzen dizu(e)gu.**

Noiz: martxoaren 14a, asteazkena.

Ordua: 19:00

Non: Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoa.

Bertan izango zare(te)lakoan,

Ainara Rodríguez Zalakain

Andoaingo Udaleko Euskara arloko zinegotzi-arduraduna



andoaINDARRA
euskaraz